



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILA

Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza
*Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta
Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Viceconsejería de Relaciones Institucionales
*Dirección de Relaciones con las Administraciones
Locales y Registros Administrativos*

**EBAZPENA, 2021EKO MAIATZAREN SEKOA, TOKI
ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO
ERREGISTROETAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN
BAITIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GAIKUNTZA NAZIONALA
DUTEN TOKI ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO
LANPOSTUAK BITARTEKO BIDEZ BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDAK
KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2016ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioen azpieskaletako lanpostuak aldi baterako betetzeko lan-poltsa bat eratu zen.

Ondoren, eta lan-poltsa hori handitu zuten hautaketa-prozesuen deialdi batzuen ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2018ko urtarrilaren 9ko Ebazpenaren bidez, besteak beste, idazkaritza, kontuhartzailletza-diruzaintza eta idazkaritza-kontuhartzailletza azpieskaletako lanpostuak aldi batean betetzeko lan-poltsak kudeatzeko arauak onartu ziren; kudeaketa-arau horiek ebazpen horren I. eranskinean jaso ziren.

2018ko martxoaren 19an jarri zen indarrean 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.

Errege Dekretu horrek 53. artikuluan aurreikusten du Autonomia-Erkidegoek beren lurralde-eremuan hautagaien zerrenda bat eratzeko aukera, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko izaeraz betetzeko. Zerrenda hori eratzeko, Autonomia Erkidegoak dagozkion gaitasun-probak deitu ahal izango ditu; betiere berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak errespetatuz. Halaber, zerrenda hori osatzeko lehentasuna izango dute dagokion azpieskalan sartzeko probetan ariketaren bat gainditu duten hautagaiek. Deialdi horiek kasuan kasuko Aldizkari Ofizialetan argitaratuko dira.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren 2021eko apirilaren 22ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko hautagaien zerrenda bat eratzeko hautaketa-prozesurako deialdia egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako idazkaritza-kontuhartzailletza azpieskalan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko izendapenez betetzeko.

Kontuan hartuta Autonomia-Erkidegoek, hautagaien zerrendak eratzeko, dagokien azpieskalan sartzeko probetan ariketaren bat gainditu duten

hautagaiei eman beharko dietela lehentasuna, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako azpieskaletako hautagaien zerrendak egiteko prozedura ezartzen da martxoaren 7ko TFP/297/2019 Aginduaren bidez, Toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko izaeraz hornitzeko Autonomia Erkidegoek eratzen dituzten zerrendetan sartzeko xedez.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako azpieskaletarako hautagaien zerrendak egiteko prozedurari buruzko erregulazio bikoitzaren ondoriozko segurtasun juridikorik eza saihesteko, eta, gainera, zerrenda horiek kudeatzeko arauak martxoaren 7ko TFP/297/2019 Agindura egokitu behar direnez, beharrezkoa da gai horri buruzko xedapen berri bat onartzea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2018ko urtarrilaren 9ko Ebazpena indargabetuz. Horrela, gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioen eskalarako gordetako lanpostuak bitartekotasun-izendapenaren bidez betetzeko, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan dauden hautagaien zerrenda guztiek kudeaketa-arau berberak izango dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1 I) artikulua adierazten duenez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagokio toki-araubideari buruzko eginkizuna. Urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren bidez, sail horren oinarritzko egitura organikoa ezarri zen.

Agindu honen izapidetzea interes orokorreko arrazoi batengatik justifikatuta dago, aipatutako gaiari buruzko kudeaketa-arau berriak onartzeko helburuarekin, kontuan hartuta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuetan hutsik dauden plazak pixkanaka gehitzen ari direla eta aplikatu beharreko araudian aldaketak egon direla; aipatutako beharrari erantzuteko ezinbestekoa den araudia jasotzen du, gainerako ordenamendu juridikoarekin modu bateratuan, eta indargabetu egin da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2018ko urtarrilaren 9ko Ebazpena.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 11. artikuluekin bat etorritik, honako hau

XEDATU DUT

Artikulu bakarra.- Onartu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko funtzionario bidez hornitzeko

hautagaien zerrendak kudeatzeko jarraibideak, eta ebazpen honen eranskin gisa txertatzen dira.

Lehenengo xedapen iragankorra.- Aurretik izendatutako bitarteko funtzionarioak.

Ebazpen honek ondorioak izan aurretik gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzen dituzten bitarteko funtzionarioei ebazpen honen bidez onartutako kudeaketa-arauak aplikatuko zaizkie.

Bigarren xedapen iragankorra.- gaikuntza nazionaleko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hautagaien zerrendak.

1.- Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazio funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko funtzionario izendapenez betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoak egindako hautaketa-prozesuen bidez hautagaien zerrendak osatzen diren heinean, indarrik gabe geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak gaur egun dituen lan-poltsak.

2.- Era berean, martxoaren 7ko TFP/297/2019 Aginduan ezarritako prozeduraren arabera egindako hautagaien zerrendek balioa izango dute agindu horretan aurreikusitako hautaketa-prozesu berriak garatzearen ondoriozko hautagaien zerrenda berriak egin arte; horrela, behin Herri Administrazioaren Institutu Nazionalak zerrenda berri bat bidalita, aurreko zerrendako pertsonak Autonomia Erkidegoko hautagaien zerrendetatik kanpo geratuko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra.- Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2018ko urtarrilaren 9ko Ebazpenaren I. eranskina, Toki Administrazio Idazkaritza, Idazkaritza-Kontuhartzailletza eta Kontuhartzailletza-Diruzaintzako lan-poltsa osatzen duten pertsonen zerrenda osoa jakinarazten duena.

Azken xedapenetako lehenengoa.- Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Erakunde Harremanetarako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan, hargatik eragotzi gabe zuzenbidean onartutako edozein aurkaratze-bide erabiltzea.

Azken xedapenetako bigarrena.- Ondorioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako idazkaritza-kontuhartzailletza azpieskalan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko izendapenez betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko hautagaien zerrenda eratzeko hautaketa-prozesurako deialdia onartu zuen 2021eko apirilaren 22ko Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren Aginduan ezarritako prozesua gainditu duten hautagaien zerrenda behin betiko onartu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak Ebazpen honek.

Vitoria-Gasteizen 2021eko maiatzaren 5ean

Miren Josune Irabien Marigorta
**TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA
ADMINISTRAZIO ERREGISTROETAKO ZUZENDARIA**

ERANSKINA

JARRAIBIDEAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GAIKUNTZA NAZIONALA DUTEN TOKI-ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK BITARTEKO BIDEZ BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDAK KUDEATZEKOAK.

LEHENENGOA.- Xedea eta eragin eremua.

1.- Jarraibide honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko bidez betetzeko hautagaien zerrenden kudeaketa arautzea.

2.- Autonomia Erkidegoko administrazioaren hautagaien zerrenda Euskadiko toki-erakundeei aplikatuko zaie, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko izendapenen bidez betetzeko.

3.- Hautagaien zerrenda hauek erabiliko dira lanpostua gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen bidez hornitzeko ezintasuna dagoenean, dagokion erakundeak berriaz eskatu ondoren.

BIGARRENA.- Hautagaien zerrenda.

1.- Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan bi motatako hautagaien zerrendak egongo dira, zerrenda bereziak izango dituztenak gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalako azpieskaletako bakoitzean:

a) Gaikuntza nazionala duten funtzionarioen eskalako azpieskaletan sartzeko hautaketa prozesuetan ariketaren bat gainditu duten pertsonak osatutakoa. Zerrenda honek lehentasuna izango du, atal honetako b) hizkian aipatutakoaren aurretik.

b) Autonomia Erkidegoko administrazioak gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko bidez hornitzeko egindako hautaketa prozesuen ondoriozkoa.

2.- Lehenengo ataleko a) hizkian aurreikusitako zerrendan sartzeko, hautagai bakoitzak eskaera egin beharko du, horretarako Toki Administrazioko Institutu Nazionalak komunikatu ondoren urtero jarriko den epearen barruan. Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak aipatutako Institutuak emandako zerrendetako hautagaietako bakoitzari jakinarazten dionean hasiko da epea.

3.- Hautagaiak aurreko atalean definitutako zerrendetako batean egongo dira soilik, azpieskaletako bakoitzari dagokionez. Horrela, azpieskala bati dagokionez, jarrabide honetako lehenengo atalaren a) hizkian aipatutako hautagaien zerrendan sartzeko hautua egiten denean, hautagaia Autonomia Erkidegoko administrazioak egindako hautaketa prozesuen ondoriozko zerrendan badago, behin betiko baja egoeran geratuko da azken zerrenda honetan, dagokion azpieskalan.

4.- Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen eskalako azpieskaletan sartzeko hautaketa prozesuetan ariketaren bat gainditu duten pertsonak osatutako hautagaien zerrendak balioa izango du hautaketa prozesu berriak garatzearen ondorioz hautagaien zerrenda berriak prestatu arte, eta hautagaiak hautagaien zerrendatik kanpo geratuko dira automatikoki dagokion azpieskalan sartzeko azken hautaketa prozesuak amaitzean.

5.- Lanpostu batean aritzeko, zerrendako hautagaiek nahitaez bete beharko dituzte lanpostu zehatzari ezarritako baldintza berezi guztiak, bereziki indarreko legeriarekin bat eskatutako titulazio akademikoa eta hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkoa denean.

HIRUGARRENA.- Kudeaketa organoa

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan toki araubide arloan eskuduna den zuzendaritzak izango du hautagaien zerrendak kudeatzeko ardura, Jarraibide hauetan ezarritakoarekin bat. Honetan aurreikusi gabekoei dagokienez, ordeko aplikaziokoak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen duten arauak.

LAUGARRENA.- Hautagaien zerrendetan mugak ezartzea.

1.- Hautagaien zerrendak tresna arina eta eraginkorra izan daitezen, zerrenda bakoitzeko hautagaiek haien prestasuna lurralde historiko batera edo batzuetara mugatu ahal izango dute. Eremua mugatzea, Toki Araubidearen arloan eskuduna den zuzendaritzak onartu ondoren, ezin izango da aldatu gutxienez sei hilabete igaro arte.

2.- Gaikuntza nazionala duten toki administrazioen funtzionarioei gordetako lanpostuak hornitzeko sistemak aintzat hartuta, ezin izango da aldi baterako mugarik ezarri, lanpostuak betetzeko gutxienerako epea ezin delako ziurtatu.

BOSGARRENA.- Autonomia Erkidegoko administrazioak egindako hautaketa prozesuen ondoriozko hautagaien zerrenda birbarematzea.

1.- Autonomia Erkidegoko administrazioak egindako hautaketa prozesuen ondoriozko hautagaien zerrendako puntuazioak hurrengo kasuetan birbarematuko dira:

- a) Toki Araubidearen arloko zuzendaritza eskudunaren titularrak onartutako deialdietan aurreikusitako prestakuntza moduluak bakoitza amaituta,

hautagaien zerrendan sartuko dira prestakuntza ikastaroa gainditu duten hautagaiak, merituen balorazioa eta prestakuntza ikastaroko puntuazioa batzearen ondoriozko puntuazioarekin, eta honek zerrendan dagoen hurrenkeraren aldaketa ekar lezake.

b) Urteko lehen hiruhilekoan, hautagaien zerrendako pertsonak birbarematuko dira zerrendatik eratorritako izendapen baten ondoren emandako zerbitzuen arabera.

Hautagaien puntuazioa 0,1 punturekin handituko da, aurreko urtean lan egindako hilabete bakoitzeko. Horretarako lan egindako aldiak batuko dira, hogeita hamar egunekin hilabete bat kontatuz, eta hilabetea baino laburragoak diren aldiak baztertuz.

2.- Toki Araubidearen arloan eskuduna den zuzendaritzako pertsona titularrak Ebazpena onartuko du egindako baremazio berriarekin, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzako Toki Araubideko zerbitzuaren web gunean argitara dadin aginduz.

3.- Hautagaien zerrendetan dauden pertsonak edozein unetan eguneratu ahal izango dituzte hizkuntza eskakizunari buruzko datuak.

SEIGARRENA. Hautagaien zerrendako egoerak.

1.- Hautagaia «lanerako prest» edo «lanerako prest ez egotea» egoeran egongo da hautagaien zerrendetako bakoitzean. Egoera hori ezberdina izan ahal izango da azpieskala bakoitzean, bere lehentasunen arabera.

2.- «Lanerako prest ez egotea» egoera, eta hautagaien zerrendako behin betiko baja, Toki Araubidearen arloan eskuduna den zuzendaritzako titularrak erabakiko du, eta interesdunari jakinaraziko zaio legezko bitartekoen bidez, adieraziz jakinarazpen horretan zeintzuk diren jar daitezkeen errekurtsioak.

ZAZPIGARRENA.- «Lanerako prest egotea» egoera.

«Lanerako prest egotea» egoeran daude, eta lan eskaintzak jaso ahal izango dituzte azpieskala bati dagokionez:

a) Zerrendan egonda, bestelako egoera batean egotea ez dagokien pertsonak.

b) Hautagaien zerrenda horretatik eratorritako zerbitzu prestazio bat amaitzen dutenak, izendapena oinarritu zuen zioa desagertu izanagatik.

Pertsona horiek «prest» egoerara igarotzea eskatu ahal izango dute zerbitzu prestazioa amaitu baino bost egun baliodun lehenago, data hori ezaguna bada, eta edozein kasutan kargu-gabetzea gertatzen denetik bost egun baliodun gainditzen ez dituen epean.

c) «Lanerako prest ez egotea» egoeratik eskatzen dutenak, bestelako egoera batean egon behar ez dutenean, Jarraibide hauetan ezarritakoarekin bat.

ZORTZIGARRENA.- «Lanerako prest ez egotea» egoera.

1. «Lanerako prest ez egotea» egoeran daude, eta beraz ez zaie lanposturik eskainiko, ondorengo zirkuntstantziaren batean dauden hautagaien zerrendako pertsonak:

a) Deia baino lehen hasitako aldi baterako ezintasuna, baja partearen bidez egiaztatua.

b) Seme edo alabaren jaiotzagatiko, adopzioagatiko, adopziorako zaintzagatiko edo familia-harreragatiko baimena baliatzen ari badira, Udalhitzen adierazitako baldintzetan, baimenak irauten duen bitartean. «lanerako prest ez egotea» dagoela adierazteak ez du hautagaien zerrendan mantentzeaz haratagoko eskubiderik sortuko.

c) Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko lehen mailarainoko senide baten heriotza, ospitaleratzea, istripua edo gaixotasun larria, deia egin aurreko hiru edo bost egun balioduneko mugarekin, gertakaria herri berean edo beste batean gertatu den kontuan hartuta. Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaide baten heriotza, ospitaleratzea, istripua edo gaixotasun larria gertatzen denean, aldi baterako muga deialdia egin aurreko bi edo lau egun baliodunekoa izango da, gertakaria herri berean edo beste batean gertatu den kontuan hartuta.

d) Ezkontza, izatezko bikotea eratzea, edo bizikidetza gertatzen bada Udalhitzen tokiko administrazioko langileei aitortutako lizentziaren iraupenaren iraupen berean, betiere horrela eskatu bada.

e) Karrerako funtzionarioen zerbitzu bereziak administrazio egoeran egotea eragiten duten kasuetakoren batean egotea, hori amaitu arte.

f) Hiru urtetik beherako adingabeak zaintzeko edo inoren laguntza behar duten adinekoak zaintzeko eskaintzarik ez jasotzea eskatu badute. Bi kasuetan ez da gutxieneko eperik egongo, baina behin bakarrik eskatu ahal izango da adingabe edo adin nagusiko kausatzaile bakoitzeko.

h) Haurdun daudenak, egoera hori amaitu arte, haiek eskatuta.

i) Genero indarkeriaren, terrorismoaren, jazarpenaren edo beste edozein indarkeria-motaren biktima izatearen arrazoiak, nolahi ere, indarreko araudiaren arabera egiaztatu beharko direnak.

j) Pertsonak alegatutako eta behar bezala egiaztatutako salbuespenezko arrazoiak, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean Toki Araubide arloan eskuduna den Zuzendaritzak baloratuko dituena.

2. Aurreko ataleko «lanerako prest ez egotea» egoerak pertsona dagoen hautagaien zerrenda guztiei aplikatuko zaizkie.

3. «Lanerako prest ez egotea» egoeran egoteko arrazoia Autonomia Erkidegoko administrazioan Toki Araubidearen arloan eskuduna den Zuzendaritzari jakinaraztea pertsonaren ardura da, eta arrazoia justifikatzen duenean jarriko da «lanerako prest ez egotea» egoeran. Hortaz, «lanerako prest ez egotea» egotearen inguruabarrak egiaztatzeko dokumentazioa «lanerako prest ez egotea» egotea eskatzeko unean aurkeztu beharko da, hurrengo atalean adierazitako epean, eta ahal dela dokumentazio horretan egoera horien hasiera eta amaiera jaso beharko dira.

4. «Lanerako prest egotea» egoerara igaro nahi duten pertsonak «lanerako prest ez egotea» egoeran egotea deklaratzeko arrazoia amaitu dela jakinarazi ahal izango dute bost egun balioduneko epea baino lehen, «lanerako prest egotea» egoerara igaro ahal izateko, eta, nolana ere, egoera hori eragin zuen arrazoia amaitu ondoren, gehienez bost egun balioduneko epean, jakinarazi beharko dute arrazoi hori amaitu dela eta, hala badagokio, dokumentazio egiaztatzailea aurkeztu beharko dute. Amaiera hori ezarritako epean jakinarazten ez bada, behin betiko baja egoeran izendatuko da.

5. Hautagaien zerrendako kideak «lanerako prest ez egotea» egoeran ezarriko dira edozein motatako eskaintzetarako, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean toki-araubidearen arloko eskumena duen zuzendaritzak ofizioz egiaztatzen badu hurrengo egoeraren bat:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko edozein toki-erakundetan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu batean aritzea, zerbitzuak irauten duen bitartean.

Interesdunak ez badu eskatzen hautagaien zerrendan sartzeko izendatua izan den lanpostua utzi eta gehienez ere bost egun balioduneko epean, behin betiko baja-egoeran ezarriko da parte hartzen duen hautagaien zerrenda guztietan.

b) Pertsona behin-behineko etenduran dagoela deklaratzeko, geldiera horrek dirauen bitartean. Baldin eta zehapen-prozedura amaituta eta behin-behineko etendura kenduta pertsonari zehapenik ez bazaio ezarri, hau da, zerbitzutik ez badute kendu, izendapena ez badiote errebotatu edo eginkizunen etete irmoa ez bada deklaratu, orduan, pertsona «lanerako prest egotea» egoerara igaroko da hautagaien zerrenda guztietan, eta bitarteko langile ziharduen lanpostura itzuliko da, zerbitzu-ematearen arrazoia artean indarrean balego.

c) Behin-behineko etenduran 6 hilabeterainoko zehapena jaso izana, zehapenak dirauen bitartean. Zehapena guztiz edo zati batean ezin izan bada bete zerbitzuak emateko aldia amaitzeagatik, zehapena — edo hura betetzeko falta den denbora— pertsonari beste eskaintza bat egiten zaion unetik aurrera hasiko da zenbatzen, eta ez zaio eskaintza gehiago egingo harik eta zehapenaren iraupena iragan arte. Zehapena bete ondoren, pertsona «lanerako prest egotea» egoerara igaroko da hautagaien zerrenda guztietan; baina ezein kasutan ez da

itzuliko bitarteko funtzionario ziharduen lanpostura, zerbitzuak ematearen arrazoia artean indarrean dagoen arren.

d) Pertsonari berrikus daitekeen ezintasun iraunkor bat aitortu bazaio, berrikusteko aldiak dirauen bitartean.

6. Halaber, lanpostu bat eskaini zaion azpieskalari dagokion zerrendan «lanerako prest ez egotea» egoeran jarriko da azpieskala berari dagokionez elkarren segidako bi eskaintzari erantzun ez dion hautagaia.

«Lanerako prest ez egotea» egoera horrek sei hilabeteko iraupena izango du, egindako azken eskaintzatik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, izangaia «lanerako prest egotea» egoera igaroko da, eta une horretan indarrean dagoen zerrendako azken lekuan jarriko da.

BEDERATZIGARRENA.— Behin betiko baja

Bigarren jarraibideko laugarren atalean aipatzen den behin betiko baja alde batera utzi gabe, ofizioz behin betiko baja emango zaie hautagaien zerrenda batean inguruabar hauetakoren batean dauden pertsonari:

1.- Eragiten dion azpieskala zehatzari dagokionez:

a) Pertsonak hautagaien zerrendan egoteari uko egitea.

b) Lanpostuari uko egiten badiote izendapena onartu ondoren; toki-erakundeak ezarritako epean lanpostuaz jabetzen ez badira; edo lanpostuaz jabetu eta gero.

c) Bigarren jarraibidean jasotako hautagaien zerrendetako bat aukeratzen dutenak, azpieskala bati dagokionez.

2.- Hautagaien zerrendetako azpieskala guztiei dagokienez:

a) Esandako epean ez justifikatzea «lanerako prest ez egotea» egoera.

b) Pertsonak nahitaezko erretiroa hartzeko adina izatea, edo hari borondatezko erretiroa aitortu izana.

c) Diziplina-espeditente bidez zehatua izatea, 6 hilabetetik gorako epe batean zerbitzutik kentzearekin, izendapena errebokatzearekin edo eginkizunen etete irmoarekin; hautagaien zerrenda guztietarako.

d) Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionario izaera lortzea.

e) Pertsonari behin betiko ezintasun iraunkor absolutu bat aitortzea.

HAMARGARRENA.- Tokiko erakundeak proposatutako pertsona ez onartzea.

Toki-erakundeak uko egiten badio, arrazoi justifikaturik gabe, lanpostua betetzeko proposatutako pertsonari, ezingo du berriro eskatu hautagaien zerrendako pertsona bat.

HAMAIKAGARRENA.- Lanpostu bera lehenago bete izanagatik zuzenean hautatzea.

Hautagaiak erreserbatutako lanpostu bat utzi behar badu gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioako funtzionario batek bete dutelako, lanpostuan bi hilabete baino gehiago ematen ez baditu, lanpostua bete ahal izango da ordura arte betetzen zuen hautagai berarekin, hautagaien zerrendan duen posizioa edozein dela ere, toki-erakundeko presidenteak hala eskatzen badu.

HAMABIGARRENA.- Hautagaien zerrendaren kudeaketa.

1.- Hautagaien zerrenda kudeatzeko prozedura hasiko da toki-erakundeak eskatuta, baldin eta toki-erakunde horrek gaikuntza nazionala duten toki-administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostu bat betetzeko, behar eta premiagatik berariaz justifikatutako arrazoiengatik, eta egiaztatu badu ezin duela lanpostua bete izendapena egiteko lehentasunezko prozeduren bidez interesa duten funtzionarioekin.

2.- Horrela, toki-erakundeko presidenteak hautagai baten eskaera egingo dio toki-araubidearen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari. Eskabidean honako hauek adierazi beharko dira:

a) Zer lanpostu bete nahi den.

b) Bitarteko lanpostu bat betetzea eragiten duten inguruabarrak; lanpostua betetzeko beharra lanpostuaren titularraren aldi baterako ezintasunagatik ordezkapenaren edo epe jakin bateko ordezkapena dakarren beste edozein egoeraren ondorio bada, adierazi beharko da, ordezkapenak izango duen aurreikusitako iraunaldia.

c) Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioako funtzionario batekin lanpostua betetzeko ezintasuna; ezintasun hori agiri bidez egiaztatu beharko da.

d) Destino-osagarriaren maila, berariazko osagarriaren hileko zenbatekoa, lanpostuari esleitutako hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.

e) Lanean hasteko gutxi gorabeherako data. Ez da onartuko hasiera-data 15 egun baliodunetik gorakoa izango dela aurreikusten duen eskabiderik.

3.- Eskaera jaso eta inguruabarrak egiaztatu ondoren, toki-araubidearen arloan eskumena duen zuzendaritza harremanetan jarriko da, posta elektronikoko/SMS mezu bidez, dagokion azpieskalako hautagaien zerrendetan «lanerako prest egotea» egoeran agertzen diren hautagaiekin, lehentasun-ordenaren arabera eta, betiere, hautagaiek egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren arabera, hori nahitaezkoa

denean. Zuzendaritza horrek egiten duen deialdian, honako informazio hau emango zaio izangaiari:

- a) Toki-erakunde eskatzailea.
- b) Eskaintzen den lanpostuaren ezaugarriak.
- c) Bitartekotasuna eragiten duten arrazoiak.

Jarraibide honetan aurreikusitako komunikazioak bitarteko telematikoen bidez egingo dira, prozedura eskatutako arintasunaz bideratu ahal izateko.

4.- Hautagaiak horretarako ezarritako prozeduraren bidez adierazi beharko du eskaintako lanpostua eskuratzeko interesa izatea edo horri uko egitea, eskaintza egin eta hurrengo egun balioduneko 9:00ak baino lehen.

Epe horretan erantzunik jasotzen ez bada, izendapenerako eskubidea galduko da eta hurrengo hautagaiari egingo zaio eskaintza.

5.- Aurreko atalean adierazitako prozeduraren arabera lanpostu baterako hautaketari uko eginez gero, eskaintako azpieskalari dagokion hautagaien zerrendako azken lekura pasatuko da hautagaia.

6.- Sistema honen bidez hautagaiarekin harremanetan jartzea lortu ez bada, hautagai horrek hautagaien zerrendan dagokion hurrenkeran jarraituko du, bigarren deialdira arte. Bigarren eskaintza horretan harremanetan jartzea lortzen ez bada, «lanerako prest ez egotea» egoerara igaroko da sei hilabetez eskaintzari erantzun ez dion azpieskalan. Hautagaien zerrendan berriro ere «lanerako prest egotea» egoerara igarotzeko, hautagaia azpieskala horri dagokion indarreko zerrendako azken tokian jarriko da.

7.- Hautagaiak egindako eskaintza onartzen duenean, toki-araubidearen arloan eskumena duen zuzendaritzak toki-erakundeari jakinaraziko dio pertsonaren izena, eta datuak emango dizkio harekin harremanetan jar dadin, foru-aldundiak lanpostua betetzeko izenda dezan.

8.- Izendatutako pertsonak lanpostuan jarraitu beharko du izendapena eragin zuen arrazoiak dirauen bitartean.

9.- Bitarteko funtzionario izendatutakoek automatikoki utziko dute lanpostua, betetzen duten lanpostu hori gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioek benetan betetzen dutenean, dela behin betiko izendapenez, dela behin-behineko izendapenez, dela zerbitzu-eginkizunez edo funtzio-pilaketaz.

HAMAHIRUGARRENA.- Izendapenak, kargu-uzteak eta errebokazioak jakinaraztea.

1.- Toki-erakundeek toki-araubidearen arloan eskumena duen zuzendaritzari igorriko dizkiote izendapena, lanpostuaz jabetzea eta kargu-uztea, hori gertatu eta hiru egun balioduneko epean.

2.- Aurreko atalean adierazitako dokumentazioa ez bidaltzearen ondorioz, gerta liteke hautagaien zerrendak osatzen dituzten pertsonen beste eskaera berri bat egongo balitz ez izapidetzea.

3.- Izendapena amaitu delako lanpostua utzi behar duten hautagaiek kargu-uzte horren berri eman beharko dute. Kargu-uzte hori jakinarazten ez bada, kargu-uztea gertatu eta gehienez ere bost egun balioduneko epean, hautagai hori kide den hautagaien zerrenda guztietan behin betiko baja-egoera deklaratu da.

HAMALAU GARRENA.- Toki-erakundeen elkarteak.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen kasuan, zenbait toki-erakundek batera eusten dietenean elkartzearaubidean, ulertuko da toki-erakundeko presidenteari egindako erreferentziak elkartzutako toki-erakunde bakoitzaren gobernu-organoei edo elkartzearen gobernu-organoei egiten zaizkiela, elkarte arautzen duten estatutuetan ezarrita dagoen eskumen- edo eskuduntza-araubidearen arabera.

HAMABOS GARRENA.- Beste azpieskala batera joateko aukera.

1.- Salbuespen gisa, eta eskatutako azpieskalari dagokion zerrendan hautagairik ez badago, beste azpieskala batzuetako hautagaien zerrendara jo ahal izango da, betiere toki-erakundearen eta foru-aldundiaren adostasunarekin.

2.- Hautagaiaren onarpena guztiz borondatezkoa izango da, eta, beraz, zerrendan ageri den beste azpieskala bateko lanpostu bat betetzeari uko egiteak ez du inolako eraginik izango zerrendan.

3.- Zerrenda hauetara joko da hurrengoetan:

a) Idazkaritza azpieskalako edo Kontuhartzailtza-Diruzaintza azpieskalako lanpostu bat bete behar bada, Idazkaritza-Kontuhartzailtza azpieskalari dagokion zerrendan dauden hautagaien zerrendara joko da.

b) Idazkaritza-Kontuhartzailtza azpieskalako lanpostu bat bete behar bada, lehenik eta behin Idazkaritza azpieskalako zerrendara joko da eta, bigarrenik, Kontuhartzailtza-Diruzaintza azpieskalako zerrendara.

4.- Beste azpieskala bateko lanpostu baten eskaintza onartzeak ez du esan nahi azpieskala horren hautagaien zerrendan sartuko denik.

HAMASEI GARRENA.- Hautagaien zerrenden kudeaketan datu pertsonalak babestea.

Hautagaien zerrendak kudeatzerakoan, datu pertsonalen tratamendua Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Tratamendu-jardueren Erregistroan sartuko da. Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza izango da arduraduna eta aukera ematen du datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko edo horien aurka egiteko, aipatutako Zuzendaritzara jota.

Hautagaien zerrendak kudeatzeko eskumena duen organoko langileek konfidentzialtasuna gorde beharko dute lan-poltsak kudeatzean eskura ditzaketen datu pertsonalen informazioari dagokionez.

Hautagaien zerrendetan dauden pertsonen zerrendan, urteko birbaremazio-prozesuaren emaitzetan eta argitaratzen diren gainerako zerrendetan soilik egongo dira publizitate eta gardentasun printzipioak betetzeko behar diren gutxieneko datu pertsonalak. Gainera, datu horiek soilik gordeko dira erreklamazioak eta errekurtsioak egikaritzeko behar den denboran zehar.

Zerrendek klausula bat edukiko dute ohartarazteko zerrendotan datu pertsonalak ageri direla, datuak babesteko gaur egungo legedia betetzen dutela eta datuon helburu bakarra dela publikotasuna ematea eta, hala egokitzen denean, hautagaiei jakinaraztea. Horrez gain, informazio-paragrafo bat ere edukiko dute adierazteko datuok ez direla edonork hartu edo erabiltzeko, eta ezin izango direla erreproduzitu -ez osorik ez zatika-, transmititu, edo edonolako errekupeazio-sistema erabilia erregistratu, eraginpeko hautagaiek berek horretarako baimenik eman gabe.